

Programa osoa, BBK, Kutxa eta Vital Fundazio akziodunek ere antolatua, erakundearen **app eta webgunean** kontsulta daiteke, eta **130.000** etxetara helarazi da

Kutxabankek 5.000 plaza eskainiko ditu adingabekoentzako ehun bat jardueratan

- **Proposamen ugari daude, bizilekuaren arabera, tailerrak, ikastaroak edo familia osoak ondo pasatzeko planak**
- **Ohikoenak diren elurretarako irteerekin edo campus teknologikoekin eta kirol arlokoekin batera jarduera berriak antolatu dira, ikasketa filosofikoa sustatzeko edo masterclass-ak instagramer-ekin, sare sozialen onura eta arriskuei buruz**
- **4 eta 18 urte bitarteko bezero guztiek Eurodisney-ra familiarekin egiteko sei bidaiaren zozketa batean hartuko dute parte, eta sormen artistikoaren lehiaketa bat ere egingo da, sariak banatuko dira eta partaide guztiek jasoko dute oparitxo bat**

2018ko urriak 12. Kutxabanken bezero diren familiak hasi dira euren etxeetan jasotzen ikasturte berriko aisialdi hezigarrirako programari buruzko informazio guztia, ohikoa denez, 4 eta 18 urte bitarteko neska-mutilentzat prestatua, baita euren familientzat ere.

130.000 inguru azalpen-liburuxka igorri dira, eskura dauden aukerak ikus daitezzen. Batzuk BBK, Kutxa eta Vital Fundazioek antolatu dituzte, eta 5.000 plaza eskainiko dira. Gainera, www.kutxabank.es/actividadesgaztedi web orrian, programa guztien xehetasunak kontsulta daitezke, lurraldea, adina, prezioa eta hizkuntzaren arabera identifikatzen dituen bilatzaile baten laguntzaz.

Oraingo honetan ere antolatuko da sormen artistikoaren lehiaketa, eta gaia **“nire heroiak”** izango da. Epaimahaiak adin-kategoria bakoitzeko lehen hiru onenak sarituko ditu eta opariak eta garaikurrak jasoko dituzte, gainera, oparitxoa jasoko dute parte hartzaile guztiek. Era berean, **Eurodisney-ra familiarekin joateko sei bidaia zozketatuko dira.**

Kutxabankek bere jarduera garatzen duen lurralde guztietan egiten diren hainbat jarduera ditu, beste programa batzuk, aldiz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako besterik ez dira. Partaideen artean egindako inkestek gogobetetze maila altua erakusten dute, **10etik 8,26 puntuko** batez besteko nota ematen baitiote, **inkestaturen % 40ek** jarduera **errepikatzen du** eta **% 96k** beste pertsona batzuei **gomendatuko lieke.**

Araban, Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolan egiten den **Campus Teknologikoan,** programazioaren logika ulertzeko aukera emango da eta partaideek euren gailuak, bideo-

jokoak eta app-ak egiteko aukera izango dute. Hainbat campusek eta kanpamenduk osatzen dute programa, eta pintura, marrazketa, collage eta argazkilaritzako ohiko txapelketak ere badaude.

Bizkaian, 2018-2019 ikasturterako programetan, sukaldaritza, hizkuntzak, musika, xakea, esgrima, 3D inpresioa edo Athleticen Gabonetako campusak aurki daitezke. Era berean, hainbeste eskatzen diren elurretarako asteburuko irteerak aurten ere eskainiko dira.

Gipuzkoako eskaintza oso anitza da proposamenetan (koloniak eta klub teknologikoak, txoko zientifikoak, animazio-zinema, sare sozialak, filosofia, sukaldaritza, e.a.), baita jarduera horietarako erabiliko diren lekuetan ere: Kutxa gunek, hala nola Tabakalera, Kutxa Ekogunea, Eureka! Zientzia Museoa eta Kubo-Kutxa aretoa. Xehetasunak www.kutxa.eus webgunean eta Kutxabanken web orrian ere bai.

Kutxabanken aisialdi hezigarrirako jarduerari buruzko informazio guztia erosotasunez kontsulta daiteke **erakundearen app eta www.kutxabank.es/actividadesgaztedi web orrian.**
